

**EUSKALTZAINBURUA  
GASTEIZKO LEGBILTZARREAN**



## EUSKALTZAINBURUA LEGBILTZARREAN

Vitoria/Gasteiz, 2002-XI-12an

Jean Haritschelhar,  
euskaltzainburua

Diputatu andere eta jaunak.

Juan Maria Atutxa Mendiola Lege Biltzarburuak gomiturik, hemen nago zuen aitzinean, hain zuzen Europako gaietarako eta kanpo harremanetarako batzordekideen aurrean. Jakin ezazue ohore handi bat dela enetzat eta Euskaltzaindiarentzat iritzi emaile gisa hemen agertzea, horrek erakusten duela zer estimua daukan Eusko Legebiltzarrak Euskaltzaindiarentzat. Eskertzen zaituztet, beraz, bihotz-bihotzez.

\* \* \*

Nizan, 2000ko abenduan onartua izan zen *Europa Batasuneko oinarrizko eskubideen araudia*, garrantzi haundiko idazkia eta denbora berean Europa Batasunak erakusten zuen prest zagoela idekitzera, 15 estatueterik 25etara joaiteko xedea hartzen zuela. Nizako itunaren ondotik gehigarritzko 23. adierazpenak (2001eko otsailaren 26ekoa). Hauxe dio bere 3. atalean:

«Zabaltzearen bidea idekirik beharrezkoa da eztabaida zabal eta sakona Europa Batasunari buruz.»

7. atalak dio ere aurre-lan horiek bukatu-eta bertze itun baten beharra narbituko dela.

Eztabaida horretara gomitatua da Euskaltzaindia eta horretarako nago hemen.

Nola ikusten dudan zabaltze hori erranen dizuet, baina baldintza batekin, ikuspegi hori euskaltzain gisa ematen dudala eta, beraz, hizkuntzaz bereziki mintzatuko naizela.

\* \* \*

## I. EUSKALTZAINDIA AHOLKU EMAILE

Alabaina, dakizuen bezala Euskal Herriko lau diputazioek sortu zuten Euskaltzaindia 1918an, hain zuzen Nafarroako Foru diputazioak, Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako foru aldundiekin batera. Frankismoaren garaia bukatu zelarik, Franco-ren heriotzaren hiru hilabeteren buruan, 1976eko otsailaren 26eko Errege Dekretuaren bitartez Erret Akademia bilakatu zen aitortzen zitzaiolarik Araba, Bizkaia, Gipuzkoa eta Nafarroako probintzietara hedatzen zela. Geroztik, 272/2000 Errege Dekretuak berretsi du aurreko hori eta Dekretuaren 1. artikulua hiru helburu hauek jarri ditu, besteak beste Euskaltzaindiaren ardurapean:

– Hizkuntza eskubideak zaintzea.

– Euskararen erabilera sustatzea.

– Hitzunek erabiltzeko moduko hizkuntza lantzea, euskara maila guztietara zabaldu eta guztion komunikabide izan dadin.

\* \* \*

Euskal Autonomia Erkidegoko Estatutuak (1979-XII-18) hauxe derasa bere 6. artikuluko 4. atalean:

«Euskarari dagozkionetan, Euskaltzaindia izango da erakunde aholku emale.»

Nafarroan, 18/1986 Foru legeak aipatzen du Euskaltzaindia, hauxe diolarik 3. artikulua 3. atalean:

«Hizkuntz arauen ezartze ondorietarako Euskaltzaindia izanen da erakunde aholku emaile ofiziala eta berari eskatuko dizkiote botere publikoek aurreko atalean ezarritakoa betetzeko beharrezko zaizkien txosten eta diktamenak.»

\* \* \*

Iparraldean, berant balin bada ere, iduri luke gauzak aldatzen ari direla. Frantses Gobernuak ezagutu du Euskaltzaindia «onura publiko aitormendun erakunde» gisa 1995eko otsailaren 20eko dekretuaren bidez. Gehiago dena, 2000. urteko abenduan, Akitaniarekin eta Pirineo Atlantikoetako Kontseilu Orokorrarekin sinatu duen Hitzarmen berezian emaiten zaio Euskaltzaindiari diru-laguntza bere iker-lanetarako. Adibidez, sinata diren hitzarmenetan hona zer derasan Kontseilu Orokorrekoak:

«Pirineo Atlantikoetako Kontseilu Orokorrak:

– Gogoratzen du euskal hizkuntzaren eta kulturaren iraunpenari eta garapenari emaiten dien garrantzia.

– Aitortzen du Euskaltzaindiari dagokiola, batere dudarik gabe, euskararen grafia, araudi, hiztegi, hizkuntza sorkuntza eta tresneria bideak finkatzea, hizkuntza mintzatuaren erabilerak direnak direla.

– Azipimarratzen du bere hizkuntza politikaren alorrean Euskaltzaindiaren ganik igurikatzen duen lankidego garrantzitsua.»

Beraz, ezagutua delarik Euskal Herri osoan aholku emaile gisa badu Euskaltzaindiak zer erranik hizkuntz alorrean.

\* \* \*

## II. ZERTAN DEN EUSKARA

Azter dezadan orain zertan den euskara Euskal Herri osoan.

Konparatzen balin badituz Frantziako Lege Nagusiaren 2. artikulua:

«La langue de la République est le français».

Eta Espainiako Lege Nagusiak diona bere 3. artikuluan, 1. atalean:

«Gaztelania da Espainiako Estatuaren hizkuntza ofiziala, espainol guzietan behar dute eta erabiltzeko eskubidea dute». Ikus daiteke berdintsuak direla, baina frantsesa motz gelditzen balin bada, Frantziako beste hizkuntzak ez aipatuz, espainolak aldiz, baditu beste bi atal diotenak, bigarren atalean:

«Espainiako beste hizkuntzak ere ofizialak izango dira haiei dagozkien Erkidego Autonomoetan, berauen Estatutei dagozkien eran».

Eta hirugarren atalean:

«Espainiako hizkuntza moeta desberdinen aberastasuna kultur ondare bat da eta hura babes eta begirunegarri izango da».

Aise ulertuko duzue nolaz frantses hiritar naizen honek miresten duen espainol Lege Nagusiaren izpirituz zabala.

\* \* \*

Hortik dator Euskal Autonomia Erkidegoko Estatutuak diona bere 6. artikuluan:

1. atalean: «Euskarak, Euskal Herriaren berezko hizkuntza denez, hizkuntza ofizialen maila izango du Euskal Herrian gaztelaniarekin batera eta guztiek dute bi hizkuntzak ezagutzeko eta erabiltzeko eskubidea».

2. atalean: «Komunitate Autonomoko Erakunde amankomunek Euskal Herriko egoera sozio linguistikoaren nabardurak kontuan izanik bi hizkuntzen erabilpena bermatuko dute, beraien ofizialtasuna erregulatuz eta beroein ezagutza segurtatzeko behar diren neurriak eta medioak erabaki eta baliaraziko dituzte».

3. atalean: «Hizkuntza dela-eta ez da inon gutxietsiko».

Azpmarratu nahi dut bereziki 3. atal hau, erakusten duelakotz hizkuntza, ondarea izanez, denen ondarea dela, eta ez dela hizkuntzaren gatik nehor bazterten, are gutiago gutxiesten edo arbuiatzen.

Euskararen erabilpena araukatzeko oinarritzko legea da enetzat garrantzi handikoa. 10/1982 azaroaren 24ekoa. Alabaina, errepikatzen du Estatutuak de-rasana 6. artikuluan:

«Euskara Euskal Herriaren berenezko hizkuntza eta gaztelaniarekin batean hizkuntza ofizial izateak ez die, inola ere, bata gatik edo bestea gatik hartaz ba-liatzen ez diren herritarren eskubideei kalterik ekarri behar...».

Gero, azaltzen ditu, herritarren eta herri-agintaritzaren eskubide eta egin-beharrak hizkuntzaren alorrean.

Eskubideak dira: hizkuntza ofizialak hitzez nahiz idatziz ezagutzeko eta erabiltzeko ahala bai administrazioarekin edo edozein erakunderekin, ikaske-tetan, komunikabideetan, politikan, sindikatetan, edozein bilkuratan... orain bertan egiten dudan bezala.

Agintarien erantzuna eta eginbidea da bai:

- Administrazioan (6. art. 14. barne).
- Irakaskuntzan (15. art. 21. barne).
- Komunikabideetan (22. art. 25. barne).

Euskararen gizarte erabilpena eta erakunde alorreko beste alderdi batzuk garatzen direla 26. art. 30. barne.

Ez da berdin Nafarroan, berreskuratze eta hobetzeari buruzko lege orga-nikoak azaltzen duela gaztelania dela Nafarroako hizkuntza ofiziala eta eus-karak hizkuntza ofizialtasuna izango duela Nafarroako lurralde euskaldunetan (9. art.).

Euskararen Foru Legeak (1986eko abenduaren 15ekoa) hiru eremutan za-titzen du Nafarroa:

- Eremu euskalduna.
- Eremu mistoa, Iruñea barne.
- Eremu ez euskalduna.

Bakoitzean azaltzen direla herritarren eskubideak.

Berrikitan, 2002ko urriaren 30ean, Nafarroako Euskararen Aholku Ba-tzordeak onartu du dekretu berria, Nafarroako Administrazio Publikoetan eus-kararen erabilera arautzen duena.

Iparraldea gelditzen da umezurtz. Egia erran, aspaldidanik hasi da frantses hizkuntza politika, François Lehenak 1539.an Villers-Cotterets-en hartu zuen erabaki delakoarekin, latinaren ordezkari frantsesa Administrazio eta bereziki justiziako hizkuntza bezala. Frantses iraultzak gogortu zuen erabakia bertze hizkuntzen kontra jokatzuz, harentzat frantsesa zela hizkuntza bakarra, herritar guztien biltzaile, Frantzia batu eta ezin zatituzkoaren finkatzaile. XIX. mendearen eta XX. mendearen lehen erdian eskola publikoa eta soldadogoa izan dira eragile suhar eta kartsuak.

Nahiz Lege Nagusiko 2.artikuluan sartzen den frantses hizkuntza lehen aldikotz hizkuntza bakar gisa, denbora berean euskara sartzen da irakaskuntzan D, B ereduetan % 21ra helduz, Estatuak pagatzen dituela ikastoletako irakasleak, B ereduak hedatzen delarik eskola publikoetan eta pribatuetan, Unibertsitatean ere euskal filologian, Baionan, behar diren diploma ofizialekin, Bordeleko eta Paueko unibertsitateetan 2. hizkuntza gisa; aldiz guti erabilia da irratian (ordu bat egunero), kasik batere telebistan (minutu bat egunero) eta batere Administrazioan, salbu bide seinaleak elebidunak diren Lapurdin, Baxe Nabarren/Nafarroa Beherean eta Zuberoan. Horretan gaude Iparraldean. Bildu zelararik Miarriritzen Euskaltzaindia 1994eko ekainean, galdegin zion frantses gobernuari onart zezan euskara hizkuntza ofiziala izan zedin Iparraldeko euskal hiru probintzietan. Erantzunik ez zuen hartu agintarien ganik.

Argi dago beraz Euskal Herriak ezagutzen dituen hiru eremuetan euskarak ez duela estatus bera, ofiziala Euskal Autonomia Erkidegoan, ofiziala bakarrik eremu euskaldunean Nafarroan, ezer ez Iparraldean. Euskarak daukan egoera beste hizkuntza batzuk badukete ere Europan, orotara 40 bat baitira gutxi erabiliak, haien artean euskara dela zaharrentariko, zaharrena ez bada.

\* \* \*

### III. EUROPA MAILAN

Oraingo Europan, 15 estatuk egina, bada 40 milioi bat jende hizkuntza xume horiek erabiltzen dituztenak. Biharko Europan 10 bat estatu sartzeko prest direnak, zenbat milioi gehiago izanen dira ? Idek ditzagun begiak eta kontuan har dezagun hizkuntzei dagokienetan Europa berri horrek erakusten duela aurpegi berezi bat, aniztasunarena.

Aniztasuna jendeetan, aniztasuna kulturetan, aniztasuna hizkuntzetan. Behar du atxiki aniztasun hori, historiak eman baitio eta kultura edo hizkuntza bat altxor paregabe bat baita.

Hortakotz argi dago Europako hizkuntza guzietan merezi dutela hizkuntza politika berezia hiru helburu finkatuz:

1. Errespetua: Bakoitza, edozein izan dadin, gutxi erabilia ala ez, errespetatua izan dadila eta ez arbuatua, hala gertatzen delarik non-nahi eta askotan.

2. Errespetatzen balin bada behar da gerizatu izan, erabilia familian lehenik, eskolan gero, ukan dezan bizi luze bat, ez dadin eror hiltzorian.

3. Errespetatu eta gerizatu baino gehiago behar da bultzatu, behar zaio eman merezi dituen baliabideak, izan ditzan diru baliabideak edo giza baliabideak.

Egia da Europa Batasuneko oinarritzko eskubideen araudiak diola bere 22. artikuluan Europa Batasunak errespetatzen duela aniztasuna erreligionetan, kulturetan eta hizkuntzetan (Nizan, 2000ko abenduaren 7an onartua). Ene us-tez ez da aski, beharrezkoa baita azaltzea ez direla bakarrik estatuen hizkuntza ofizialak, baina bai gutxi erabiliak diren hizkuntza guztiak.

Urrats batzuk eginak izan dira, hala nola Europako lurraldeetako edota gutxiengo hizkuntzen Arau nagusia, dotzena bat Estatuk –Espainia barne-sinatu eta berretsi dutenak, Frantziak aldiz izenpetu duela bakarrik eta ez berretsi. Urrats bat gehiago behar da eman eta deitzen da ofizialtasuna edo hobeiki erran koofizialtasuna.

Espainia sartu da bide horretan bere Lege Nagusiari esker bere 3. artikuluan eta bereziki 2. eta 3. ataletan, aipatu ditudanak lehenago. Irakur dezadan berriz 3. atala:

«Espainiako hizkuntza desberdinen aberastasuna kultur ondare bat da eta hura babes eta begirungarri izango da.»

Europa Batasunak aldarrika dezake gauza berbera azpimarratuz aniztasunarekin doazela *aberastasuna*, *ondarea*, *babesa* eta *begirunea*.

Begiruneak edo errespetuak adierazten du beste printzipio bat: ez dela deus baztertzen, ez hizkuntzarik eta ez jenderik ere hizkuntzaren gatik. Hemen nahi nuke gogorazi Euskal Autonomia Erkidegoko Estatutua bere 6. artikuluan eta 3. atalean:

«Hizkuntza dela-eta ez da inor gutxietsiko.»

Hitz hauek ere Europa Batasunak har litzake eredu gisa, zuzenki sartzen baita giza eskubideen adierazpen orokorrean.

Badakit koofizialtasuna aipatzen eta gomendatzen dudalarik hizkuntza gutxi erabilentzat ez direla enekin ados izanen jende asko, bereziki Frantzia, hain indartsua delakotz jakobinoen ohitura. Alta, beste estatu batzuetan hala



gertatzen da, Espainian bereziki, ahantzi gabe Belgika, Britainia Handia, Italia eta abar...

Hain zuzen, frantsesek aldarrikatzen dutelarik beren lema: askatasuna, berdintasuna eta anaitasuna ez dira konturatzen edo ez dute konturatu nahi hizkuntza baten ofizialtasunak sortzen duela askatasuna hitzunarentzat, eskubidea ere eta beraz, askatasuna hizkuntzaren erabiltzeko hitzez nola idatziz Administrazioan eta, eman dezagun, bizitzeko garai guztietan, 1982ko euskararen legeak salatzen duen bezala.

Berdintasunari begira, oroitarazten dut Europa Batasuneko ministroen kontseiluak erabaki duela 200leko azaroaren 29an:

«Europako hizkuntza gutiak berdinak direla balioz eta duintasunez kulturaren aldetik bereziki, eta Europako kultura eta zibilizazioan sartzen direla osoki».

Denok badakigu badirela gehiago erabiliak diren hizkuntzak ingelesa, frantsesa, gaztelania, alemana, italiara eta abar... literatura aberats eta ederra sortu dutenak eta badirela beste batzuk gutxiago erabiliak, euskara adibidez; baina on da europar guztiek jakin dezaten hizkuntza guztiek ahal berdinak dituztela, bakoitzak bere historia daukala, baina printzipioz denak berdinak direla balioz eta duintasunez. Koofizialtasuna jokutzen da berdintasunaren alde.

Anaitasuna berdintasunaren seme edo alaba da. Berdintasunak ez du onartzen baztertzea, ukatzea, mespretxatzea, arbuiatzea; koofizialtasunak sort dezake eremu berean erabiltzen diren bi hizkuntzen arteko anaitasuna. Euskaldun batek ez dezake ahantz Etxepareren oihua *Kontrapaseko* azken errepikan idazten zuelarik:

«Heuskara, jalgi hadi dantzara».

Orduan gomitatzen zuen euskara hizkuntza guztien dantzara, gomita berbera egina baitezake Europak bere baitan dituen hizkuntza guztientzat, koofizialtasuna lortuz denontzat.

Ez da dudarik holako hizkuntza politika baten bultzatzeko gehiengo kalifikatuan behar dela jokatu, ukatuz edozein estatuk, eza emanaz, dena suntsitzen duela. Datorren itunak ezabatu behar du aho bateko erabakia eta ofizialdu gehiengo kalifikatua.

\* \* \*

Ikusi duzuen bezala hizkuntzez bakarrik mintzatu naiz, hizkuntza baita Euskaltzaindiaren ardurapean, zainduz eta bultzatuz euskara. Ez naiz beste alorretan sartu ez bainaiz trebe haietan. Egin ditudan komentarioak eta oharrak Europa Batasuneko oinarritzko eskubideen araudiari buruz eginak izan dira eta biharko Europari begira.

Giscard d'Estaing presidentearen ardurapean batzorde bat ari da Europako Lege Nagusiaren apailatzen. Berak, berrikitan (ikus *Le Monde*, 2002ko urriaren 30ekoa) aurkeztu du Europa Batasunaren Lege nagusiaren ekei edo aitzin idazki bat bere adar nagusietan. Dirudenez 6. artikuluan sarraraz lezake Europa Batasuneko oinarrizko eskubideen araudia, Nizan onartua. Hala ere on liteke araudi horren garatzea euskarak, bretoierak, okzitaniera, katalanerak, kortsikerak... ukan dezaten Frantzian, euskarak, galegoak eta katalanerak daukaten koofizialtasuna Espainian. Hizkuntza gutxi erabili guztiek ukan dezaten garatzeko eta loratzeko ahala, bakoitzak bere aldetik eskainiz berea Europa Batasunari. Biharko European denak joan daitezela elgarrekin eta elgar sustatuz orkestra baten pare.

Hau da ene ametsa.